



2021/06/24KO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2021/06/24
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 19:20

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Maria Cristina Etxenausia Irure

Oihana Ameskoa Perez

Gorka Astondoa Altuna

Santiago Balantzategi Beitia

Ana Maria Martiarena Arregi

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

Ez bertaratuak:

Pedro Elosegui González de Gamarra

Iban Herrarte Arana

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzailea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.	3
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.	3
3. ONARTZEA UDALAREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN INBENTARIO OROKORRA EGUNERATZEA.	3
4. ALKATEA ESKUORDETZEA 2019JESK0001 ESPEDIENTEA BURUTZEKO SINATU BEHARREKO DOKUMENTUAK ETA EGOKI DIREN JARDUNBIDEAK AURRERA ERAMATEKO.	3
5. HERRIKO JAI EGUN OFIZIALA IZENDATZEA 2022 URTERAKO.	5
6. ENERGIA BERRIZTAGARRIEN HEDAPENARI BURUZKO MOZIOA.	5
7. TORTURAREN BIKTIMAK BABESTEKO NAZIOARTEKO EGUNEKO MOZIOA.	5
8. GALDERAK ETA ESKAERAK.	6



1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.

Alkate-Lehendakariak 2021eko maiatzaren 27ko ohiko bilkurako aktaren ganean inork oharririk ote duen galdetu du.

Inork akta horri buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak akta onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu da, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (145/21etik 196/21era).

3. ONARTZEA UDALAREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN INBENTARIO OROKORRA EGUNERATZEA.

Alkateak hitza hartu eta gogorarazten du, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 32. artikulua ezartzen duela administrazioek nahitaez inbentariatu behar dituztela beren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak. Eta halaber, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 33. artikulua xedatzen duenez, inbentarioak eguneratua egon behar du.

Hartara, azkeneko eguneraketa egin zenetik hainbat aldaketa izan dira udal ondasun eta eskubideen inbentario orokorrean: salerosketak, besterentzeak, donazioak, eta abar. Horiek guztiak kontuan hartuta, ondorengo aldaketen zerrenda lortu da, egun indarrean dagoen inbentarioa eguneratzeko:

SALEROSKETAK

- 2000/03/16an Construcciones Elzari AITA GABIREL JAUREGI kaleko 4 zk.an LOKALA erostea (gaur egun Egunekeo Zentroa)
- 2001/10/05ean Construcciones Elzari AITA GABIREL JAUREGI kaleko 6 zk.an LOKALA erostea (gaur egun udal almazena)
- 2008/01/15ean Trinidad Barandiaren Uribarreni 1 POLIGONOKO 124 LURSAILA (Karikogain parajea) erostea
- 2008/04/11n Jose Martín Zabala Gaugutiari 5 POLIGONOKO 240 eta 241 LURSAILAK (San Adrian parajea) erostea
- 2010/11/08an Construcciones Olabarriri PEDRO IGNACIO BARRUTIA kaleko 7A zk.an LOKALA erostea (gaur egun Erabilera anitzeko gazte lokala)
- 2010/11/15ean Jose Ramon Mendizabal Uriarte eta Jaione Aguirre Arreguiari 6 POLIGONOKO 105 LURSAILA (Murumendi parajea) erostea
- 2011/06/07an M^a Elena Jauregui Cillaurren, Javier Jauregui Cillaurren eta Amaia Mazorriaga Ormaetxeari hainbat partzeletatik m²-en SEGREGAZIO, SALEROSKETA ETA BATZEKO eskritura (Ibarrako ur deposito BERRIAREN kokapena)
- 2013/06/07an Arabako Foru Aldundiarekin PERMUTA (IBZ erikina kokatzeko)
- 2015/06/02an erostea Gotzaitegiari 6 POLIGONOKO 755 eta 591 LURSAILAK (Azkoaga auzoko eliza ondoko lursailak) eta 1 POLIGONOKO 90 LURSAILA (Gureiako gas deposituaren kokapena)
- 2016/12/14an KONTRATOA 3 POLIGONOKO 524 eta 525 LURSAILAK (Kasatxo inguruan) erosteko (**ESKRITURAK EGITEKO ZAIN**)

DONAZIOAK

- 2015/06/10ean Sebastiana Balanzategui Unzueta eta Idoia Salaberri Balanzategui 5 POLIGONOKO 544 eta 550 LURSAILEN donazioa (Salaberri agestoixe)
- 2017/11/14an Gotzaitegiak 3 POLIGONOKO 812 HIRI-LURZATIAREN donazioa (Santa Ana ermita)



- 2021/04/29ko pleno erabakia: 4 POLIGONOKO 260 LURSAILA ETA 259 eta 261 LURSAILEN ZATIAK (guztira, 62.790 m² BESAIDEN) (**ESKRITURAK EGITEN**)

ALDI BATERAKO LAGAPENA

- 2015/06/02an 1 POLIGONOKO 515 eta 573 LURSAILEN erabilera 20 URTETAN lagatzea, Uribarri auzoko aparkaleku publiko eta doakoa izateko
- 2009/04/21eko KONTRATOA SAN SEBASTIAN (Sastiña) ERMITAREN erabilera 30 URTETAN lagatzea, gizarte eta kultura helburuekin erabiltzeko.

HIRIGINTZA LAGAPENAK

- U.E. 4 (IB 08): Aita Gabirel Jauregi kalea
- U.E.6 : Iturrizuri kalea
- U.E. 3 (IB 07): Osteta kalea

KONTRATOAK

- 6 POLIGONOKO 551 LURZATIA (Zabolako gas depositoaren kokapena)

EXPROPIAZIOAK

- 21,20 m² 4 POLIGONOKO 20 LURSAILETIK Maximo Crucelaegui Plazaolari Iturrizuri kalea eta Matxain kalea batzen dituen ZUBIA jartzeko. ZUBIA.

BIDEAK

- OLETAKO UR DEPOSITORA doan BIDEA
- Zabolako 6 POLIGONOKO 548, 549 eta 66 LURSAILEN arteko BIDEA (egun, 6 poligonoko 776 katastro erreferentzia)

INBENTARIOTIK KENTZEA

- Salduta 3 POLIGONOKO 481 LURSAILA (Gantzagan) GREGORIO GALLEGO BERNEDOri

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“**Lehena.-** Onartzea udalaren ondasun eta eskubideen inbentario orokorra eguneratzea eta azkeneko eguneraketatik sortutako aldaketak jasotzea.

Bigarrena.- Dagokion erakundeei honakoaren berri ematea.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, udalbatza osatzen dutenen gehiengo absolutua bertan dagoelarik, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. ALKATEA ESKUORDETZEA 2019JESK0001 ESPEDIENTEA BURUTZEKO SINATU BEHARREKO DOKUMENTUAK ETA EGOKI DIREN JARDUNBIDEAK AURRERA ERAMATEKO.

Alkate andreak hitza hartu eta gogorarazten du, 2021eko urtarrilaren 28ko Udalbatzak onartu zuela ebaztea Zabola auzoko 6 poligonoko 548, 549 eta 66 lurzatien arteko bidearen desafektazio espedientea (2019JESK0001). Hartara, esandako bidea erabilera publikotik kendu egin zen, soberako lursail izendatu zen eta alboko lursailaren jabeari zuzenean besterentzea onartu zen, lurzorua antolatzeke irizpiderik zentzuzkoenari egokitzuz.

Dagokion epea igaro ondoren eta inolako errekurtsorik aurkeztu ez denez, erabaki horrek bere irimotasuna iritsi du. Horrenbestez, egoki diren jardunbideak aurrera eraman beharra dago, adostutako erabakia egikaritu ahal izateko (esaterako notaritzan, jabetza erregistroan, ogasunean eta abar).



Besterik gabe, alkate-lehendakariak aurkezten du, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion akordio proposamena:

“**Lehena.-** Alkatea eskuordetzea Zabola auzoko 6 poligonoko 548, 549 eta 66 lurzatiaren arteko bidearen desfektazio espedientea (2019JESK0001 espedientea) burutzeko sinatu beharreko dokumentuak eta egoki diren jardunbideak aurrera eramateko.

Bigarrena.- Eskuordetza honek alkatea gaituko du, sinatu beharreko dokumentuak sinatzeko eta bete beharreko eginbide guztiak aurrera eramateko, desfektatu eta soberako lursail izendatu den bidea, 6 poligonoko 66 partzelaren jabeei zuzenean besterentzeko jardunbidean”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, udalbatza osatzen dutenen gehiengo absolutua bertan dagoelarik, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

5. HERRIKO JAI EGUN OFIZIALA IZENDATZEA 2022 URTERAKO.

Alkate-Lehendakariak hitza hartu eta, jakinarazten du, maiatzaren 20an argitaratu zela 132/2021 Dekretua, maiatzaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2022 urteko jaiegunen egutegia onartzeko dena. Horrek, indarrean dagoen araudiarekin bat, xedatu zuen, bi mila eta hogeita bi urtean, egun baliogabetzat hartuko direnak lan ondorioetarako Euskal Autonomia Erkidegoan, hots, ordaindu egingo direnak eta ez direnak berreskuratu beharko. Halaber, esandako dekretuak udalei eskatzen die, tokian tokiko jai egun ofiziala ere izendatu eta Lan eta Justizia Saileko lurralde-ordezkaritzari jakinarazi diezaiotela.

Alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“Lehena.- Uztailaren 4a izendatzea Aramaioko jai egun ofiziala 2022 urterako.

Bigarrena.- Dagokion jakinarazpena egitea Lan eta Justizia Saileko lurralde-ordezkaritzari.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

6. ENERGIA BERRIZTAGARRIEN HEDAPENARI BURUZKO MOZIOA.

Alkateak gogorarazten du, aurreko osoko bilkuran gai hau mahaiaren gainean gelditu zela. Kontua da, mozio bat aurkeztu zuela eta EAJ udal taldeak mozio horri zuzenketa egiteko beste mozio bat aurkeztu zuela bilkuran bertan. Ondoren, guztia ondo aztertzeko denborarik izan ezenez, hurrengo bilkurarako utzi zen.

Alkateak aurkeztutako energia berriztagarrien hedapenari buruzko adierazpen proposamena, horrela dio, hitzez hitz:

“ENERGIA BERRIZTAGARRIEN HEDAPENARI BURUZKO MOZIOA

Gaur egun, Larrialdi Klimatika daukagun mehatxurik handienetako bat da. Beraz, erantzun azkarra eta klima eta energia politiken eraldaketa eraginkorra eskatzen duen erronka baten aurrean gaude. Erronka honek lan eta ahalegin partekatua eta Euskal Herri neutro batera iristeko ibilbide-orri bat eskatzen du. Horrek guztiak, jakina, gizarte gisa interpelatzen gaitu, eta gure ohituretan zenbait aldaketa eskatzen dizkigu.

Politika publiko guztiek bizi dugun egoerari erantzun behar diote. Erantzun adostua eman behar dugu. Aldez aurretik zehaztutako eta adostutako lurralde estrategia bati erantzuten ez dioten proiektuak garatzea saihestu behar dugu. Esan ere, Araban gure lurraldeak behar duen strategiara egokitzen ez diren energia berriztagarrien proiektuak ugaritzen ari dira azken hilabetetan.

Testuinguru horretan, energia berriztagarriekin eta horien ezarpenarekin lotutako bi eztabaida handiren atarian gaude: Araba Klima 2050 plana Araban, eta, are garrantzitsuagoa, EAeko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (LPS). Beraz, berriztagarrien mapa definitzeko eta adostasunetik abiatuta egiteko tresna gisa balioko duen dokumentuaren eztabaida eta definizioaren aurrean gaude, ingurumenaren babesa eta herritarren interes orokorrak ahaztu gabe.

Horregatik guztiagatik, Aramaioko Udalak:



1. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, larrialdi klimatikoaren testuinguruan, energia berriztagarrien hedapena modu antolatu eta planifikatuan egingo dela bermatzea, herritarren interesak errespetatuz eta lurraldeko ingurumen balioen zaintzarekin bat etorritz.
2. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) onartze prozesua ahalik eta azkarren bideratzea, izapidetze prozesuan ahalik eta kontsentsu politiko, sozial eta instituzional handiena bilatuz.
3. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio energia berriztagarrien inguruko plangintza egiterako orduan, lehenetsi ditzala berriztagarrien hedapen deszentralizatua eta biziki antropizatua dauden kokalekuak.
4. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio LPSa izapidetu bitartean ez dezala aurrera egin ingurumenean eragina izan dezaketen partaidetza publikoko energia berriztagarriko proiektuetan.”

EAJ udal taldeak, berriz, aurreko adierazpen horri buruzko zuzenketa aurkeztu zuen. Ondorengo testua aurkeztu zuen, hitzez hitz, gai beraren inguruan:

“Euskadiko energia jasangarritasun 4/2019 legearen garapenez ordezkatzeko zuzenketa EH Bilduk aurkeztutako mozioari, toki erakundeen aldetik.

.....k, EAJkko Udalean duen taldeko bozeramaile denak, indarrean dagoen araudiaren argitan, Bilduk Euskadiko energia jasangarritasun 4/2019 legearen garapen-ari buruz egindako mozioari honako ORDEZKATZE ZUZENKETA hau aurkeztu dio.

ZIOEN AZALPENA

Eusko Jaurlaritzak hamarkadak daramatza energia eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien aldeko planak garatzen. 2021. urteko ekitaldiari begira, zeregin hori era nabarmenean areagotu da; batez ere, Euskadiko Energia Jasangarritasun 4/2019 Legearen bultzadaren ondorioz. Eusko Jaurlaritzak 100 milioi euro jarriko ditu udalen eta toki erakundeen eskura, aipatutako legean ezarritako eskakizunak eta proiektuak betetze aldera.

Euskadiko Energia Jasangarritasun 4/2019 Legea betetzeak, errealitatea egokitzea eskatzen dituen erronketera hurbiltzeak inbertsio ahalegin handia ekarriko dute, toki erakundeen aldetik, are konplexuago dena, COVID19 Pandemiak eragindako egoeraren ondorioz.

Eusko Jaurlaritzak, aurrean, bi lankidetzak-formula eratu ditu, erakunde publiko guztiek energia jasangarritasunaren inguruko adierazleak hobetzeko dituzten erronkei aurre egiteko, 2030. urtera begira:

- 1.- Energiaren Euskal Erakundeak aurrean bertan, 2021ean, 10 milioi euroko dirulaguntza programa bat abiaraziko du, udalek eta toki erakundeek energia auditoriak egin ditzaten euren udalerrietan, bertako energia egoera sakontasunez ezagutzeko asmoz.
- 2.- Energiaren Euskal Erakundeak 0 intereseko finantza lerro bat jarriko du martxan, auditorietan aurreikusiko diren jardueren inbertsioak aurrera eramateko. “Gauzatu energia” izeneko finantza lerro horrek 90 milioi euroko aurrekontua izango du.

Aipatutako dirulaguntza eta finantza lerro horiez gain, badira ere lehendik bideratzen ari diren beste laguntza batzuk, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta Energiaren Euskal Erakundeak energia eraginkortasuna eta energia berriztagarriak sustatzeari begira garatzen ari direnak, hala nola:

- Energia eraginkortasunaren aldeko etxebizitzien birgaitzea laguntza programa: 25,1 M€, 2021-2022 ekitaldietarako
- Garraio eta mugikortasun efizientearen aldeko inbertsioak: 1,9 M€
- Toki administrazioan energia eraginkortasunaren eta eguzki termikoaren aldeko inbertsioak: 1,4 M€
- Biomasa energetikoki ustiatzeko instalazioetan inbertsioak: 1 M€
- Geotermia energetikoki ustiatzeko instalazioetan inbertsioak: 0,9 M€
- Autokontsumo elektrikorako energia berriztagarrien alorreko instalazioetan inbertsioak: 5,7 M€
- MOVES III Plana (birkargatzeko guneak, ibilgailu arinen erosketa...): 18 M€

Ekonomia eta energia arloko eraldaketa handi-handiek maila goreneko jardura estrategiko garrantzitsuak eskatuko dituztela jakitun, baita tokian tokiko egitasmo txikiagoak,

EAJko (-----) udal-taldeak, EH Bildu Taldeak aurkeztutako mozioaren ordezkoko zuzenketa hau aurkeztu du, toki-erakundeek Euskadiko jasangarritasun energetikoari buruzko 4/2019 Legea garatzeari dagokionez.



ZUZENKETA

- 1.- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari eskatzea toki erakundeekin lankidetzeta eta laguntza areagotzeko eta sendotzeko, ahalik eta proiektu gehien suspertzeko xedez.
- 2.- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari premiatzea “Gauzatu energia” programara bideratutako baliabideak euskal udalerrri guztietara era zuzenean helduko direla bermatzeko eta toki mailako ekimenak sustatzeari begira nahikoak izateko.
- 3.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea energia berriztagarrien alorreko instalazio berriak sustatzen jarraitzeko.
- 4.- Lortutako edo adostutako akordioa dagokien erakundeei helaraztea.”

Alkateak adierazten du, taldean eztabaidatu ondoren, ez dutela onartuko bigarrenko mozio proposamena. Hasierako proposamena, hau da, EH Bildu udal taldeak aurkeztutakoa, bere horretan onartuko dutela. Bestalde, uste dutela beste kontu bati erantzuten dion mozio proposamena dela bigarrenko testua, beste erakunde batzuetan aurkeztu dena antzeko gaien inguruan.

Juan Antonio Peña Orobengoa zinegotziak irizten du bi mozio ezberdin direla baita, bi kontu ezberdinei egiten dietela erreferentzia.

Oihana Ameskoa Perez zinegotziak adierazten du, bi gauza ezberdinei ematen dietela erantzuna eta, beharbada, beste mozio batetan garatzeko planteamendua izan daitekeela.

Besterik gabe, alkate andreak bozketa deitu du. Ondorioz, EH Bildu udal taldeko zinegotzien aldeko bozkak (6) eta EAJ udal taldeko zinegotziaren aurkako bozka (1) jasota, Udalbatzak ONARTU ETA BERE EGITEN DU, proposatutako lehenengoko testuarekin, “Energia berriztagarrien hedapenari buruzko mozia”.

7. TORTURAREN BIKTIMAK BABESTEKO NAZIOARTEKO EGUNEKO MOZIOA.

Torturaren Biktimak Babesteko Nazioarteko Eguna izendatu dute Nazio Batuek ekainaren 26a. Hori dela eta, alkateak ondorengo mozia aurkezten du (hitzez hitz):

“TORTURAREN BIKTIMAK BABESTEKO NAZIOARTEKO EGUNEKO MOZIOA.

Ekainaren 26an, Nazio Batuek Torturaren Biktimak Babesteko Nazioarteko Eguna bultzatu zuten, António Guterres idazkari nagusiaren hitzekin bat: “Torturatzaileen krimenak ez dira inola ere zigorgabe utzi behar, eta tortura ahalbidetzen duten sistemak eraldatu egin behar dira”. Nazioarteko erakundeak gogorarazten du tortura Gizateriaren aurkako krimena dela, eta salatzen du “biktimaren nortasuna suntsitzen duela eta gizaki ororen berezko duintasuna mespretxatzen duela”.

Eusko Legebiltzarrak, 2019ko ekainaren 6an, egun hori ospatzearen aldeko jarrera hartu zuen, eta Eusko Jaurlaritzari torturaren biktima guztiak berariaz aitortzeko ekitaldia egin zezala eskatu zion, beste biktima batzuei egiten dizkien ekintzen antzeko parametroetan ulertuta.

Torturatutako pertsonen kolektiboak askotan adierazi du, biktimizazio bikoitza jasaten dutela biktimarioei omenaldia eta aitortpena egiten zaizkienean.

Testuinguru horretan, Udal honek torturaren biktimen eskaera kolektiboa babestu behar duela uste du, beste biktima batzuen parean onarpena izan dezaten, nahiz eta sufrimendu hori sistematikoki ezkutatu den eta erakundeek bertan behera utzi dituzten erreklamazioak.

Horregatik, Aramaiokoko Udalbatzak:

- 1) Torturaren Biktimak Babesteko Nazioarteko Egunerako Nazio Batuek egindako deiarekin bat etorritik, torturak Euskal Herriko indarkeria politikoaren testuinguruan duen sakontasuna eta hedadura berariaz onartzen du, zalantzarik gabeko txostenek zenbatutako 5.000 kasu baino gehiago daudela onartu ere.
- 2) Krimen horien zigorgabetasuna ez onartzera eta tortura ahalbidetzen duten sistemak (legeria eta auzitegi bereziak, torturaz erauzitako testigantzetan oinarritutako zigorrak...) eraldatzera eta bertan behera uztera deitzen dugu.
- 3) Gorputz polizial dezberdinen eskuetan tortura fisiko edo psikiko oso larriak jasan dituztenen abandonua eta ahanztura instituzionala salatzen du.
- 4) Aitortza Instituzionala egiten dio haien sufrimenduari egia, justizia eta oroimena eskatuz, eta etorkizunean inoiz ez errepikatzeko neurriak hartu daitezzen.



5) Onartutako mozio hau publiko egingo du herritarrei berri emanez.”

Hitza hartu du Juan Antonio Peña Orobengoa zinegotziak eta adierazi du, EAJ udal taldeak beste mozio bat daukela alkateak aurkeztutakoaren ordezkari udalbatzak onartzeko. Irakurri egiten du mozio proposamena eta hitzez hitz horrela dio:

“Aramaioko udalak, Euskolegebiltzarrak torturaren eta botere-abusuen biktimak aitortzeari buruz onartutako 69/2019 lege besteko proposamenarekin bat etorritik

ERABAKITZEN DU

1. Nazio-batuen Ekainaren 26an Torturen biktimen aldeko Nazioarteko eguna ospatzeko ekimenaren bat egitea.

2. Oroitzapen horren helburua da biktima horiek gizartearen aurrean aitortzea, giza eskubideen urraketa larri horrek dakarren bidegabekeriagaitik. Horrela tortura eta botere-abusuen biktimekiko beharrezkoa den aitortpen instituzionala babesten dugu, haien sufrimenduari Egia, memoria eta ordaina emateko beharri balioa emanez, eta botere publiko demokratiko guztiei eskatzen diegu neurriak har ditzatela, etorkizunean ez direla inoiz errepikatuko bermatzeko.

3. Jakinaraz bekei akordio hau Eusko Jaurlaritzari eta Espainako Gobernuari.”

Alkateak galdetzen dio ea asmoa den lehenengo testua baztertu eta, horren ordezkari, irakurritako bigarren testua onartzea; edo puntuak gehitzea den; edo moldatzea den; edo beste zerbait.

Juan Antonio Peñak erantzuten dio baietz, lehenengo testuaren ordezkari bigarrena onartzea dela proposamena.

Oihana Ameskoa Perez zinegotziak esaten du, zenbait puntutan osagarriak ere izan daitezkeela proposatutako biak, baina ez bata bestearen ordezkari onartzeko modukoak.

Besterik gabe, alkate andreak bozketa deitu du. Ondorioz, EH Bildu udal taldeko zinegotzien aldeko bozkak (6) eta EAJ udal taldeko zinegotziaren aurkako bozka (1) jasota, Udalbatzak ONARTU ETA BERE EGITEN DU, proposatutako lehenengoko testuarekin, “Torturaren Biktimak Babesteko Nazioarteko Egunari buruzko mozioa”.

8. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Ez daude.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.